

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Azkoien da materia organikoa biltzeko “bosgarren edukiontzia”ren sistema ezarri duen Nafarroako lehen herria

Esparza kontseilariak gaur aurkeztu du bilketa boluntarioaren sistema, eta herritarrek erabiltzera bultzatu ditu. Gobernuak sistema horren alde egin du.

Martes, 01 de octubre de 2013

José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak eta Erriberagoiengo Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateko lehendakariak gaur aurkeztu dute Azkoien bereiztutako bosgarren edukiontzia (sarbide murriztua giltzarekin), aipatutako mankomunitateak materia organikoaren gaikako



Carlos de Miguel eta Esparza kontseilaria materia organikoa botatzen “bosgarren edukiontzira”.

bilketarako hautatu duen modua baita. Erriberako herria da, hala, hondakinak biltzeko sistema erabiltzen hasi den Nafarroako lehen herria.

Hori dela-eta, gaurtik aurrera, sisteman parte hartu nahi duten herritarrek giltz bat eskuratuko dute hondakin organikoak bosgarren edukiontzira bota ahal izateko. Azkoien, oraindik, 50 edukiontzi marroi jarri dira. Erabiltzaile kopuruak gora egingo du herritarrek programan izena eman ahala.

Eredua pixkanaka ezarriko da Erriberagoiengo Mankomunitatearen eremu osoan (Faltzes, San Adrián, Azagra, Funes, Martzilla, Milagro, Cadreita eta Alesbes, Azkoienek gain). Guztira 32.465 biztanle bizi dira mankomunitatean.

Erriberagoiengo Hondakin Mankomunitateak aurreikusitako duenez, datozen hiru hilabeteetan familien % 10ak parte hartuko du eta datorren urtearen amaierarako % 25era iritsiko da zenbatekoa. Parte-hartzea boluntarioa izango da beti, beraz, bilketa-sistema berria dituen abantailengatik



aukeratzen duten herritarrek erabiliko dute.

Hondakinak biltzeko sistema berriaren aurkezpenean izan direnak, edukiontzi berrietako baten aurrean.

Gaur egun, Nafarroako Erriberagoiengo Mankomunitatearen eremu osoan 550 edukiontzi daude materia organikoa eta errefusa botatzeko. Mankomunitateak beste 250 jarri ditu bosgarren edukiontzi gisa erabiltzeko, eta mankomunitatea osatzen duten 9 herrien artean banatuko dira.

Urtero 11.000 tona materia organiko eta errefusa biltzen dira. Horietatik 6.000 tona inguru materia organikoa dira eta, beraz, edukiontzi berrietara bota daitezke.

Nafarroako Gobernuak bosgarren edukiontziaren alde egin du

Europar Batasunaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Hondakinei buruzko Direktibaren eta hondakinei eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen arabera, 2020 baino lehen bereizita biltzen diren hondakin organikoen kopurua hondakin guztien % 50 izan beharko da, gutxienez.

Hori lortzeko, Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratuan jasotzen diren eruedetatik bat da bosgarren edukiontzia. Nafarroako Gobernuak sistema horren alde egin eta bilketa-modua sustatu nahi du, betiere biztanleei borondatez hautatzeko aukera emanda. Hala adierazi du José Javier Esparza kontseilariak, eta biztanleak hondakinen gaikako bilketan beste urrats bat ematera animatu ditu, Foru Komunitateak alor horretan lehena izaten jarrai dezan eta ingurumenarekiko errespetua eta konpromisoa hatuta duela erakutsi dezan.